

DISKURTSOA: APIRILAREN 22KO AGERRALDIA

OIER SANJURJO - Nafarroako Ikastolen Elkartearen lehendakaria

Arratsalde on guztioi. Eskerrik asko gaur hona, Hezkuntza Departamentuaren atari honetara, hurbildu zareten hedabide, eragile eta herritarrei.

Milesker, lehen-lehenik, Nafarroako Ikastolei, gaur Iruñera etortzeagatik, zuen eskubideak eta guztienak defenditzera. Gaur ez gaude hemen ikastolen alde bakarrik, gaur Nafarroako hezkuntza komunitate osoaren alde gaude hemen. Gaur Nafarroa euskaraz josi nahi duten guztien alde gaude hemen.

Milesker hona etorri zarete familiei, irakasle, langile eta ikasleei. Nafarroako txoko guztietatik etorri zarete, Nafarroa osoan baikaude hedatuta ikastolak.

- ANDRA MARI IKASTOLA Etxarrin
- ARANGOITI IKASTOLA Irunberrin
- ARGIA IKASTOLA Tuteran
- BAZTAN IKASTOLA, Elizondon
- ERENTZUN IKASTOLA Vianan
- GARCÉS DE LOS FAYOS IKASTOLA Tafallan
- IBAIALDE IKASTOLA Lodosan
- IÑIGO ARITZA IKASTOLA Altsasun
- JASO IKASTOLA Iruñean
- LABIAGA IKASTOLA Beran
- LIZARRA IKASTOLA Lizarran
- PAZ DE ZIGANDA IKASTOLA Atarrabian
- SAN FERMIN IKASTOLA Zizur Txikin
- TANTIRUMAIRU IKASTOLA Lesakan
- ZANGOZAKO IKASTOLA Zangozan

Zuek josten duzue Nafarroa, auzolanean eta euskaraz, zuek ematen diezue bizitza gure herri eta bailarei. Milesker egiten duzuen lanagatik! Egunero ikasgelatan eta herrietan ari zarete. Gaur kalean, jakina, gaur kalean egotea tokatzen baita.

Gaur hemen gaude haserre gaudelako eta haserre egoteko arrazoiak soberan ditugu. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak kolpe latza eman die Nafarroako Ikastolei, eta bereziki, gure komunitatea osatzen duten milaka familiari. Alde bakarrez, elkarrizketari ateak itxita eta inposaketaren bidea hartuta, 7 ikastolari Haur Hezkuntzako itunak ukatu edo murriztea erabaki du datozen 4 urteetarako.

Las ikastolas estamos enfadadas y tenemos motivos para estarlo. El Departamento de Educación nos ha dado un golpe duro a las ikastolas navarras y, sobre todo, a las miles de familias que conforman nuestra comunidad. Unilateralmente, han cerrado las puertas al diálogo y han impuesto recortes que afectan a 7 ikastolas.

Hezkuntza Departamentuak hartutako erabaki hau ez da erabaki tekniko bat, erabaki politiko eta arbitrarioa baizik. Jaiotza-tasa bereziki baxuko urte bat erabili dute aitzakia gisa gure sareari murrizketak ezartzeko. Orain arteko irizpideak aplikatu izan balira eta berdintasun printzipioa mantendu, orain arteko itun guztiek berdin jarraituko lukete, eta are gehiago, gela batzuk gehitu ere egingo liriateke. Beraz, zergatik ezarri zaigu zigor hau?

La decisión de imponer recortes a las ikastolas no es una decisión técnica, es una decisión arbitraria. Han utilizado como pretexto un año de una natalidad extraordinariamente baja. La verdad es que, si se hubieran aplicado los mismos criterios que se venían utilizando y se hubiera mantenido el principio de igualdad, no solo se hubieran mantenido los conciertos que teníamos, sino que se hubieran ampliado. ¿Entonces, por qué se nos castiga?

Gu Ikastolak gara. Herritik eta herriarentzat sortutako proiektuak. Gu ere Nafarroa gara. Nafarroan sortuak, nafarrek sortuak, Nafarroarentzat lanean ari garenak. Nafarroa osoan, euskarazko hezkuntza bermatzen duen sarea gara. Gure auzolanari esker josten dugu Nafarroa euskaraz, egunero, bailaraz bailara, herriz herri, gizarte osoari ekarpena eginez. Eta Euskal Herriko gainontzeko Ikastolekin saretuta gaude, herri bat hezkuntzatik josiz.

Auzolana gara. Auzolanean eta gizarte onuran sinisten dugu. Ez dugu pribilegiarik eskatzen, ez dugu beste inor baino gehiago izan nahi. Baina ez dugu onartuko gutxiago izatea. Izateko eskubidea eskatzen dugu, besterik ez.

Eta kaltetuen artean guztiak gaude, ikastolak eta Nafar gizartea bera. Baina baita pertsona zehatzak ere, Nafarroako herrietan beren denbora, indar eta ilusioa ikastolen proiektuan jarri duten Nafar horiek guztiak. Horiei ikastolako bidea itxi nahi diete eta ez dugu onartzen. Nafarroako haurrek eskubidea dute ikastolan ikasteko! Nafarrek eskubidea dute ikastolen proiektuaren kide izateko!

Entre las afectadas estamos todas, las ikastolas y la sociedad navarra en su conjunto. Incluidas todas las personas que han puesto y ponen su tiempo y su ilusión en este proyecto. A todos esos navarros y navarras no les podemos cerrar las puertas de las ikastolas. ¡Los niños y las niñas navarras tienen derecho a estudiar en las ikastolas!

FAMILIEN ORDEZKARIA

Arratsalde on. Gaur hemen nago erabaki bidegabe honek zuzenean kolpatu dituen dozenaka familien izenean. Gure atzean ez dago soilik zenbaki bat edo datu estatistiko bat; gure herrietan euskaraz bizi eta hazteko eskubidea aldarrikatzen duten haurrak eta gurasoak daude.

Hezkuntza Departamentuaren erabaki honekin, gure ikastoletan sei gela ixteko arriskuan jarri dituzte. Zergatik oztopatu nahi digute bidea? Zergatik zigortu behar gaituzte euskarazko eredu bat, eredu propio eta komunitario bat, aukeratzeagatik?

Auzolanean eraiki ditugu gure ikastolak, gure izerdiarekin eta gure ilusioarekin, inork ezer oparitu gabe. Orain, administrazioak, lagundu eta babestu beharrean, ateak ixten dizkigu muturren aurrean. Nafarroan euskararantz urratsa eman nahi duen familiari ezin zaio eskubide hori ukatu. Inpotentzia eta haserre handia sentitzen dugu, baina argi izan dezatela ez garela besoak gurutzatuta geratuko. Gure seme-alaben hezkuntza eta gure hizkuntza eskubideak defendituko ditugu.

OIER SANJURJO - ITXIERA

Eskerrik asko Kattalin. Entzun duzuen bezala, egoera muturrekoa da. Administrazioak bizkarra eman digu, baina guk ez diogu gure komunitateari bizkarrik emango.

Hezkuntza Departamentuari eta Nafarroako Gobernuari eskatzen diogu, berehala, bidegabeko erabaki hau atzera bota dezala eta mahai baten inguruan eseri dadila, benetako berdintasunean oinarritutako irtenbideak bilatzeko. Ez da atzerapausoak emateko momentua, etorkizunari anbizioz heltzekoa baizik.

Pedimos al Departamento de Educación que anule esta injusta decisión y se siente a dialogar en torno a una mesa para buscar y encontrar soluciones basadas en la igualdad. No es el momento de dar pasos atrás en la educación navarra sino de mirar hacia un futuro mejor. Por eso, seguiremos con las movilizaciones, porque las ikastolas queremos seguir tejiendo Navarra en igualdad de oportunidades en todo nuestro territorio.

Bien bitartean, guk mobilizatzen jarraituko dugu. Ez dugu onartuko gure proiektua eta Nafarroaren euskalduntzea arriskuan jartzea. Gizarte zibil osoari, euskalgintzari eta hezkuntza komunitate osoari dei egiten diogu gurekin bat egitera, ikastolen eta euskararen defentsan. Adi hurrengo deialdietara.

Nafarroa euskaraz josten jarraituko dugu. Atzerapausorik ez !

Lortuko dugu!

I-kas-to-lak